

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MIKROPIGMENTAZIO-TEKNIKEI BURUZKO AHOLKULARITZA ETA HAIEN APLIKAZIOA (zeharkakoa)	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF1159		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Mikropigmentazioa (zeharkakoa)	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Mikropigmentazio-teknikak aplikatzeko ekipoen, instalazioen eta produktuen prestaketa (zeharkakoa)	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0067_3 MIKROPIGMENTAZIO-PROZESUAK EGITEA ETA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB3, LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Larruazalaren ezaugarriak eta egoera aztertzea, mikropigmentazio bidez egin daitezkeen zuzenketak proposatzeko, larruazala prestatzeko eta zaintzeko kontraindikazioak eta erabilerak identifikatzeko.

EI1.1 Bezeroen motibazio, itxaropen eta behar ohikoenak deskribatzea, teknikari buruzko proposamenak prestatzeko.

EI1.2 Mikropigmentazio-tratamendua aplikatzeko neurriak hartzea eta tratamendua aldi baterako edo betiko ez egitea eskatzen duten larruazaleko alteraziorik ohikoenak identifikatzea.

EI1.3 Larruazala orbaintzeko eta birsortzeko prozesuan eragiten duten eta tratamendua aplikatzeko kontuan hartu behar diren neurriak hartzea eta tratamendua aldi baterako edo betiko ez egitea eska dezaketenez bezeroaren osasun orokorreko egoerak identifikatzea.

EI1.4 Teknika egokia aplikatzeari buruz aholkatzeko informazioa aukeratzea, erabilerak eta kontraindikazioak deskribatzea, eta azaltzea, behar izanez gero, profesional egokiengana bideratua izango dela.

EI1.5 Azaltzea tratamenduaren aurretik larruazala prestatzeko zer zainketa egin behar dituen bezeroak eta tratamenduan eta tratamenduaren ondoren larruazala behar bezala birsortzeko zer zainketa egin behar dituen.

EI1.6 Bezeroaren dokumentazioan azaldu behar duten datu pertsonalak, teknikoak eta grafikoak, baimen idatziak jaso behar duen informazioa eta bezeroari eman behar zaion dokumentazioa aipatzea.

A2: Aurpegiko lerroak eta aplikatu daitezkeen visagismo-zuzenketak aztertzea.

EI2.1 Aurpegi-motak sailkatzea, aurpegiaren geometriaren eta proportzioen arabera.

EI2.2 Lerroen bidez obalo-motei zer zuzenketa egiten zaizkien azaltzea.

EI2.3 Bekain-motei egiten zaizkien zuzenketak diseinatzea eta haiek begi, sudur eta obaloarekin duten erlazioa deskribatzea.

EI2.4 Begi-motei delinearatzeko bidez egiten zaizkien zuzenketak diseinatzea.

EI2.5 Aurpegiaren harmonia hobetzeko ezpain-motei lerro bidez egiten zaizkien zuzenketak diseinatzea.

EI2.6 Soilik makillaje bidez eta ez mikropigmentazio-teknika bidez egin daitezkeen zuzenketak identifikatzea.

EI2.7 Bezeroak normalean tratamenduaren diseinuari eta kokapenari buruz azaltzen dituen eta mikropigmentazio bidez ase ezin diren motibazioak eta beharrak azaltzea.

EI2.8 Fitxa teknikoek eta argazki-dokumentuek jaso behar dituzten bezeroaren lerro-zuzenketak azaltzea.

A3: «Kolore naturala imitatzea» aplikazioak aztertzea buru-larruazalean, pubiseko ileetan, bularreko areoletan, orbainetan, bitiligoetan, erretako larruazalean eta bestelako diskromietan, zuzentzeko.

BI3.1 Kolore-proba buru-larruazalean, pubiseko ileetan, bularreko areoletan, orbainetan, bitiligoetan, erretako larruazalean eta bestelako diskromietan egiteko jarraibideak deskribatzea.

EI3.2 Bularreko areolen kopia diseinatzea, kopia nahi den areola kontuan hartuta.

EI3.3 Bularreko areolen berreraikuntza bikoitza diseinatzea, bularren geometriara eta proportzioetara egokituz.

EI3.4 Bularreko areoletako orbainak kamuflatzeko aukerak diseinatzea.

EI3.5 Orbainak, erretako azalak eta beste diskromia batzuk kamuflatzeko aukerak deskribatzea.

EI3.6 Bitiligoak pigmentatzeko dauden moduak azaltzea.

EI3.7 Buru-larruazaleko eta pubiseko alopezia hasiberriak kamuflatzeko modua diseinatzea.

A4: Kolorearen eragina eta bilakaera eta koloreak pigmentuen konposizioarekin eta larruazalaren ezaugarriekin duen erlazioa aztertzea.

EI4.1 Mikropigmentazioarekin erlazioan dauden kolorearen teoriaren eta pigmentu-koloreen nahasketaren alderdirik garrantzitsuenak azaltzea.

- EI4.2 Bekainen, begi-lerroaren eta ezpainen aplikazioetako kolore-oinarriak nola aukeratu azaltzea, aurpegiko koloreak harmonizatzeko (larruazala, ilea, bekainak, betileak eta ezpainak).
- EI4.3 Buru-larruazaleko, pubiseko, bularreko areoletako, orbainetako, bitiligoetako, erretako larruazaleko eta bestelako diskromietako aplikazioetan «kolorea imitatze» erabiltzen diren tekniketarako kolore-oinarriak nola aukeratu azaltzea.
- EI4.4 Mikropigmentazioa aplikatu eta gero edo denboran egiten duen bilakaeran lortu diren eta nahi ez ziren tonuak zuzentzeko kolore osagarrien legeak nola aplikatzen diren azaltzea.
- EI4.5 Ikusitako azken kolorea eta hark denboran izan duen bilakaera erlaxatzea aukeratutako pigmentuen kolore-oinarrien konposizio kimikoarekin.
- EI4.6 Ezarritako pigmentuen elementu hauen eraginez kolorean izandako erreakzioak azaltzea:
- Hainbat laser-mota.
 - Eguzki-erradiazioak.
 - Prestakin kosmetiko edo sendagarri jakin batzuekiko eta kanpoko beste eragile batzuekiko interakzioak.
- EI4.7 Kolorea mantentzeko egin beharreko zainketak deskribatzea.
- EI4.8 Pigmentuak aukeratzeko kasu praktiko batean, azaltzea parametro hauek nola eragingo dioten elkarri nahi den kolorea lortzeko eta hark denboran izango duen bilakaeran:
- Larruazalaren ezaugarriak: kolorea, lodiera, irrigazioa, sentikortasuna eta beste batzuk.
 - Aukeratutako pigmentuen kolore-oinarrien konposizio kimikoa.
- EI4.9 Makillajeak eskaintzen dituen aukerei dagokienez mikropigmentazioan koloreak aukeratzeko zer muga dauden azaltzea.
- A5: Baliabide teknikoak lortu nahi diren efektuetara egokitzuz aplikatzea eta gainbegiratzea mikropigmentazio-teknikak.
- EI5.1 Bekainetan, begietan eta ezpainetan mikropigmentazioa aplikatzeko protokoloak diseinatzea alderdi hauek kontuan hartuta:
- Gune bakoitzeko larruazalaren ezaugarriak.
 - Pigmentuen kolorea.
 - Orratz-mota.
 - Teknika-mota.
 - Dermografoaren abiadura, presioa eta mugimendua.
 - Tratamenduaren aurretik, tratamendua egiten den bitartean eta tratamenduaren ondoren egin beharreko zainketak.
 - Erabili beharreko produktuak.
- EI5.2 Kolore- eta tolerantzia-proba egiteko jarraitu beharreko urratsak eta larruazalaren erantzuna deskribatzea.
- EI5.3 Mikropigmentazioa ezarri aurretik larruazala prestatzeko zer eragiketa tekniko egin behar diren azaltzea.
- EI5.4 Aholkularitza-etapan jasotako tratamendu-proposamena eta fitxa teknikoan jasotako datuak berrikustea, bezeroarekin batera.
- EI5.5 Egin beharreko nahasketak eginez prestatzea pigmentuak, kontuan izanik konposizio kimikoak eta kolore-oinarriek tratatu beharreko guneko larruazalaren kolorearekin duten interakzioa eta ezarritako koloreak denboran duen bilakaera.
- EI5.6 Gunea garbitzeko, deskongestionatzeko, hidratatzeko eta leuntzeko kosmetiko espezifikoak eta anestesia gisa erabiltzeko aplikazio topikoko produktuak ematea.
- EI5.7 Dermografoa potentzia eta abiadura egokiaz eta aukeratutako orratz-motarekin eta -konfigurazioarekin prestatzea.
- EI5.8 Bezeroa bera babesteko eta arriskuak prebenitzeko behar diren segurtasun- eta higiene-neurriak betez prestatzea.
- EI5.9 Erlaxatzeko eta ondo egoteko giro egokia sortzea, eta bezeroa posizio ergonomikoan jartzea.
- EI5.10 Gunea bozetoari jarraituz zuzentzea, behin bakarrik erabiltzeko tresna diseinatzaile esterilatuak eta aukeratutako pigmentuak erabiliz.
- EI5.11 Pigmentu-nahasketa nahi diren saturazio-maila eta kolorearen intentsitatea lortzeko eta denboran nahi den bilakaera lortzeko kontzentrazio egokian sartzeko, parametro hauek kontuan hartuta:
- Orratz-mota.
 - Aukeratutako pigmentu-nahasketa.
 - Dermografoaren abiadura eta potentzia.
 - Norabidea, mugitzeko teknika eta presioa.
- EI5.12 Bezeroarekin berrikustea lortu den emaitza, eta tratamendua bukatzeko espezifikoak diren erabilera topikoko produktuak ematea.
- EI5.13 Bezeroari jakinaraztea tratamenduaren ondoren zer alderdi izan behar dituen kontuan eta zer produktu kosmetiko eman behar dituen, nahi ez diren erreakzioak saihesteko eta emaitzak optimizatzeko.
- EI5.14 Bezeroari jakinaraztea komeni dela gomendatutako aldiak igarotakoan, tratamendua berrikustea, egin beharreko ukituak egitea eta tratamendua berriro egitea.
- EI5.15 Fitxa teknikoan jasotzea egindako tratamenduaren datuak eta azken argazki-dokumentuak.
- A6: Mikropigmentazioa-zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea, eta desbideratzeak zuzentzeko neurriak proposatzea.
- EI6.1 Egindako tratamenduari buruzko datuak biltzea, segimendua behar bezala egiteko, kalitatea kontrolatzeko eta emandako zerbitzua optimizatzeko.
- EI6.2 Bezeroaren gogobetetze-maila egiaztatzea tratamenduaren ondoren, gomendatutako aldietan.
- EI6.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan:
- Zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko teknikak aplikatzea.
 - Behar izanez gero, kalitatea hobetzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.

BI6.4 Instalazioen, altzarien, ekipoen eta pigmentuen kalitatea ebaluatzea indarrean dagoen araua betez eta laneko arriskuak prebenitzeko segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatuz.

Edukiak

1. Bezeroen osasunaren ezaugarriak.

- Bezeroaren alderdi fisikoak, pertsonalak eta psikoemozionalak.
- Mikropigmentazioarekin erlazionatutako larruazalaren alterazioak.
 - Mikropigmentazioa aplikatzean, orbaintzean eta birsortzean eragindako lesioak.
 - Larruazaleko arazoak.
 - Mikroorganismoak transmititzeko mekanismoak.
 - Sarbideak.
 - Larruazaleko lesioak.
 - Alergiak.
 - Bezeroaren egoera bereziak.
- Mikropigmentazio-tekniken aplikazioari buruzko aholkularitza.
- Kontraindikazioak. Aldi baterakoak edo behin betikoak.
- Tratamendu aurreko, tratamendua egin bitarteko eta tratamenduaren ondorengo jarraibideak.
- Mantentzeko aholkuak.

2 Dokumentazio tekniko, legala eta komertziala: Bezeroarentzako informazioa.

- Tratamenduari buruzko datuak.
- Emaizten segimendua eta kalitate-kontrola.
- Bezeroak erakartzeko eta bideratzeko protokoloa.
- Baimen idatzia.
- Argazki-dokumentuak.
- Datuak babesteko legea.

3 Pigmentatu beharreko guneen morfologia eta zuzenketak.

- Ile-larruaren egitura.
- Pigmentatu beharreko gunetako larruazalaren berezitasunak.
- Larruazalaren funtzioak.
- Hezur- eta muskulu-egitura.
- Orbaintzea eta birsortzea mikropigmentazioan.
- Aurpegiko proportzioak, geometria eta lerroak. Mikropigmentazioan aplika daitezkeen lerro-zuzenketak ezpainetarako, bekainetarako eta begietako marretarako.
- Bularren, bularreko areolen, buru-larruazalaren eta gorputzeko beste zona batzuen proportzioak eta geometria.
 - Ilean lerro naturala eta buru-larruazalean eta gorputzeko beste zona batzuetan kamuflatu beharreko alopezia-zonak aztertzea.
 - Bularreko areoletarako, buru-larruazalerako eta pubiserako zuzenketak.
- Soilik makillaje bidez eta ez mikropigmentazio-teknika bidez egin daitezkeen zuzenketak.
- Pigmentuaren migrazio posibleak

4 Argia eta kolorea.

- Argi-motak eta haiek mikropigmentazioan duten eragina.
- Kolore-nahasketak. Harmonia eta kontrastea.
- Kolorearen teoria mikropigmentaziora aplikatuta:
 - Argi-koloreak eta pigmentu-koloreak.
 - Koloreen sailkapena.
 - Kolorearen teoria.
- Kolorea hautatzeko mikropigmentazioan dauden mugak.
- Mikropigmentazio-teknika bidez zuzendu daitezkeen larruazalaren kolorearen alterazioak:
 - Orbainak.
 - Erretako larruazalak.
 - Bularreko areolak.
 - Bitiligoak.
 - Beste diskromia batzuk.
- Maniobrak edo aplikazio teknikoak eragindako kolore-aldaketak.

5 Mikropigmentazio-tekniken parametroak.

- Orratz-motak eta orratzen konfigurazioa.
- Dermografoaren abiadura eta potentzia.

- Dermografoaren norabidea.
- Mugimendu-motak.
- Egindako presioa.
- Dermografoaren proiektzioa.
- Sarpén-angelua.
- Sarpén-sakonera. Orratzaren luzera. Sarpénaren luzera.
- Pigmentua eta sarpénaren sakonera.

6 Mikropigmentazio-tekniken aplikazioa.

- Mikropigmentazio-tratamenduen protokoloak.
- Mikropigmentazioko profesionalen neurri higieniko-sanitarioak.
- Bezeroaren higie-ne prestaketa.
- Aplikazio-teknikak.
 - Marra mehea.
 - Puntillismoa.
 - Ingurua.
 - Ile-efektua.
 - Estaltzea/Betetzea.
 - Bat egitea.
 - Azala azalaren gainean.
 - Zortziak.
 - Sigi-saga.
 - Bira.
 - Erradiala.
 - Mugimendu bizkorrak.
 - Zirkulu irekiak.
- Aplikazio teknikoak areoletan, bekainetan, betazaletan eta ezpainetan.
 - Maniobra aukeratzea.
 - Orratz-kopurua eta -konfigurazioa aukeratzea.
 - Aparatuen maiztasuna programatzea.
 - Aplikazioen aldaerak.
- Lehen laguntzak mikropigmentazioan.

7 Mikropigmentazio-prozesuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.

- Mikropigmentazioa-zerbitzuak ematean izandako desbideratzeak detektatzeko teknikak.
- Mikropigmentazio-zerbitzuen kalitate-faktoreak.
- Mikropigmentazio-zerbitzuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Mikropigmentazio-zerbitzuen kalitatea definitzen duten parametroak.
- Bezeroaren gogobetetze-maila kontrolatzea, eta mikropigmentazio-zerbitzuetako desbideratzeak zuzentzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF1158 gainditua izan behar du: Mikropigmentazio-teknikak aplikatzeko ekipoen, instalazioen eta produktuen prestaketa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua